

Ekoizpena: Lehenik eta behin erositako lehengaiekin armairuaren piezak fabrikatzen hasiko gara. Horiek egin ondoren bezeroek eskatutakoaren arabera armairuak diseinatuko ditugu. Prozesua amaitzeko, bezeroak aukeratzen duen zerbitzuaren arabera jasoko du bere armairua, eta hau muntatua izango da.

Arazoek konpontzea: Gure bezeroak edozein zalantza, konponketa edo aldaketarik behar izanez gero, proClouset enpresako langile guztiak prest gaude beraien beharrak asetzeko eta ongizatea bermatzeko. Gainera, eskaintzen dugun garantiaren bidez, edozein ezusteko izanez gero, gurekin azkar kontaktatu eta segituan azalduko gara arazo hori ahalik eta azkarren konpontzen saiatzeko.

Sareko jarduerak: Lehen esan dugun bezala, on line denda bat eskaintzen dugu. Bertan erosi ahal izateko, bezeroak web orrira sartu beharko dira, eta eskeintzen ditugun modelo ezberdinak begiratzeko eta aukeratzeko aukera edukiko dute. Hortaz produktuak pertsonalizatu ahal izango dituzte beraien gustura eta behin aukera eginda, zuzenean produktua erosiko dute.